

DIRULAGUNTZAK

Landa garapen arloko proiektuei erantzuteko hiru diru-laguntza zuzenekin kontatzen da, Eusko Jaurlaritzako Leader eta Erein programak eta Foru Aldundiko Mendi Nekazaritza Programa.

▪ **MENDI NEKAZARITZA PROGRAMA**

Elkarteak gertuen landu eta kudeatzen duena da, Goierriko udal eta elkarteentzat ere erreferentziazko diru-laguntza bihurtu delarik, ez hainbeste suposatzen diruarengatik, herri mailako zenbait ekimen txiki baina interesgarriak aktibatzeke, babesteko suposatzen duenagatik, baizik. Batik bat, nekazaritza sortu edota baserrialdea sustatzera bideratutako proiektuak dira hemen sarrera dutenak.

- Baserri munduaren garapena:
 - lurra balioan, produkzioan jartzeko proiektuak
 - zerbitzuen egituraketa: makineria, egitura amankomunak bultzatu.
 - ekoizpen eredu berriak. produkzio alternatibo eta dibersifikazioa.
 - Merkaturaketa. Azokak, salmenta gune eta aukera berriak irekitzea. produktuen gaineko estrategiak:
- Landa eremuaren izaera
 - Kultur ondarearen zainketa eta ezagutza: nekazaritza gaiei buruzko gizarteratze ekintzak, herri identitatearekin lotutako jarduerak
 - Ingurumen eta natur ondarearen zaintza: ibilbide tematikoak, paisaia eta inguruneen zaintzarako proiektuak
- Landatar eremuetako horniketak
 - Zerbitzu eta ekipamenduak: auzo-elkartetako lokalak; seinalizazioak; zerbitzu makinaria eskuratzea;
 - Oinarrizko azpiegiturak: ur hornidura proiektuak eta baserri bideak.

▪ **LEADER**

2013 urte artean indarrean egongo den Programa hau 2008ko azaroan onartu zen. Zonifikazio mugatua du eta zenbait herri osorik kanpoan gelditu dira (Ordizia, Ormaiztegi, Urretxu eta Zaldibia) eta beste herri handien kasuan auzoetara iristen da. Programa honen baitan jasotzen diren lan ildoak dira:

- ✓ Turismo jardueren sustapena
- ✓ IKT teknologian oinarritutako zerbitzu eta ekipamenduen garapena
- ✓ Herri txikietako mikroenpresen sorrera (denda eta negozioak).

- ✓ Nekazaritzakoak ez diren jardueratara dibertsifikatzeko laguntzak.
- ✓ Nekazaritza, elikagaigintza, basogintza sektoreetan produktu, prozesu eta teknologia berriak garatzeko lankidetzari laguntzak

▪ **EREIN**

2013 urte artean indarrean egongo den Programa honetan 2000 biztanle baino gehiagoko udalerrien kaskoak dira laguntzetatik kanpo gelditzen diren bakarrak, nahiz herrien arabeko zonifikazio eta leheneste bat egiten den.

- ✓ Oinarrizko hornikuntza-zerbitzuak: ekipamenduak ezartzea eta oinarrizko azpiegiturak egokitzea.
- ✓ Herrien berrikuntza: hirigintza proiektuak, hondatuta dauden guneak berritzea.
- ✓ Ondarea zaindu eta hobetzea: ondare historiko-kulturala zein nekazaritzako ondore etnografikoa mantentzea, berreskuratzea.
- ✓ Etxebizitzak: eremuak urbanizatzea etxebizitza sustapen kolektiboaren bidez.
- ✓ Enpresak sortu eta azpiegiturak moldatzea: jarduera ekonomikotarako lurzorua urbanizatu eta lokalak prestatzea.
- ✓ Lanpostu berriak: besteren konturako langileak kontratatzea eta beren kabuzko jarduerak sortzea, hau da, langile autonomoak